



Ebazpena, Hezkuntzako sailburuordearena, 2020ko maiatzaren 20koa, eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana (2016-2020) eta Hezkuntzako sailburuordearen 2017ko irailaren 18ko Ebazpenean ezarritako Hamaika Esku Programa 2020-2021 ikasturtera luzatzen dituen.

Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana 2016-2020 onartu zuen Hezkuntza Sailak, ikasle sartu berriak eta atzerritar jatorriko familiak gure hezkuntza-sisteman sar daitezen laguntzeko, gizartean benetan parte har dezaten sustatuz, eta arau-, antolamendu- eta metodologia-ekimenak sustatuz, hezkuntza-sisteman sartzea eta bertan jarraitzea errazteko jarduerak laguntzeko eta aurrerapen linguistiko, akademiko, pertsonal eta profesionala errazteko, jatorrizko kulturak aintzat hartuta.

Planak hiru jarduera-eremu jasotzen ditu: arau- eta informazio- eta komunikazio-eremua, plangintza-eremua eta berrikuntza-eremua. Horietako bakoitzerako, helburu espezifikoko zehazten dira, eta gauzatu beharreko ekintzak eta ekintza bakoitzean inplizituki egin beharreko zereginak identifikatzen dira. Plana garatu, jarraitu eta ebaluatzeko, hiru batzorde ezartzen dira: 2016-2020 aldirako Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako Planaren Jarraipen eta Garapen Batzordea, araudiari, informazioari eta plangintzari buruzko Batzorde Teknikoa, eta Hezkuntza Berriztatzeko Prestakuntza, Plan eta Programei buruzko Batzorde Teknikoa.

Aurreikusita zegoen Plana 2016-2017 eta 2019-2020 ikasturteen artean garatzea. Hala ere, 2019-2020 ikasturte honetan sortutako salbuespen-egoerak, COVID-19k eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz alarma-egoera deklaratzeko eragindakoak, eragotzi egin du Plana garatzeko lanak aurreikusitako moduan amaitzea, eta, era berean, planaren jarraipen-batzordeen lana geldiarazi da.

Bestalde, Hezkuntzako sailburuordearen 2017ko irailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Hamaika Esku Programaren bigarren aldia antolatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan, 2017-2018 eta 2019-2020 ikasturteen artean.

Programa honen helburua da Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak hobetzea, diagnostiko-ebaluazioen bidez ebaluatutako oinarrizko gaitasunetan hasierako garapen-mailetan ikasle ugari baitaude, ikastetxe horiei oinarrizko gaitasunen garapen-maila eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzeko ahaleaginean lagunduz. Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, talde tekniko bat, jarraipen instituzionaleko talde bat eta jarraipen-batzorde bat ezartzen dira parte hartzen duten ikastetxe bakoitzean.

Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planean gertatu den bezala, COVID-19k eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz sortutako salbuespen-egoerak eragotzi egin du



normaltasunez amaitzea bai ikastetxe bakoitzean egindako lanak, bai programako lantaldeei eta jarraipen-batzordeei dagozkienak.

Aurreko arrazoiak direla-eta, 2020-2021 ikasturtean luzatu egin behar dira bai ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana bai Hamaika Esku Programa, 2019-2020 ikasturtera arte garatu diren baldintza berberetan.

Hori dela eta,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- 2020-2021 ikasturtean luzatuko da 2016-2020 aldirako Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana, plan horretan 2016-2017 eta 2019-2020 ikasturteen artean ezarritako baldintza berberetan.

2. artikulua.- Hamaika Esku Programa 2020-2021 ikasturtean luzatzen da, Hezkuntzako sailburuordearen 2017ko irailaren 18ko Ebazpenean ezarritako baldintza berberetan. Ebazpen horren bidez, Hamaika Esku Programaren bigarren aldia ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan, 2017-2018 ikasturtetik 2019-2020 ikasturtera bitarteko aldirako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 20a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Miren Maite Alonso Arana